



FORMAKUNTZA: NOLA GARATU PROIEKTU BAT?

Donostia, 2024ko abenduak 17

¿NOR GARA?

Farapi kooperatiba Araitz, Gabriela, Haizea, Irati, Leire, Maider, María, Nerea, Nico, Ines eta Oihanek osatzen dugu.

Gure lana diziplina anitzeko ezagutzetan eta begiradetan oinarritzen da: antropologia, feminismoa, partaidetza-prozesuak eta ekonomia.



FORMAKUNTZAREN PLANTEAMENDUA

1. Proiektu baten planteamendu orokorra
2. Proiektua egin eta idaztea. Kontuan hartu beharreko elementuak
3. Ebaluazioa
4. Justifikazioa
5. Baterako hausnarketa

ZER DA PROIEKTU BAT?

ZER DA PROIEKTU BAT?

Proiektu bat **denbora jakin batean** eta **baliabide mugatuekin** helburu espezifiko bat lortzeko egiten diren jarduera planifikatu eta koordinatuen multzo bat da.



Helburu argia du
(zer lortu nahi den).



Aldi baterakoa da
(hasiera eta amaiera ditu).



Baliabideak behar
ditu (pertsonak,
denbora, dirua,
materialak).



Zeregin antolatuak
eta metodologia bat
eskatzen ditu.




Emaitza jakin bat
sortzea bilatzen du
(produktu bat,
zerbitzu bat,
aldaketa edo
irtenbide bat).



PROIEKTUAK ASKOTARIKOAK IZAN DAITEZKE

JARRAITU BEHARREKO URRATSAK



PROIEKTU OROK ERANTZUN BEHARREKO GALDERAK

Aurkezpena:

- Nor gara gu?
- Nondik gatoz?

Diagnóstikoa:

- Zer lortu nahi dugu?
- Zergatik egin nahi dugu proiektua?
- Zer lortu nahi dugu?

Diseinua:

- Zertarako egingo dugu proiektua? (helburuak)
- Nola egingo dugu? (metodologia)
- Zer egingo dugu? (ekintza-plana)
- Nola egingo dugu? (metodologia)
- Zer ikuspegik edo irizpidek gidatzen dute proiektua (parte-hartzailea, feminista, komunitarioa, teknikoa, berritzailea, etab.)?
- Norentzat? (onuradunak)
- Norekin egingo dugu? (lankidetzak)
- Noiz egingo dugu? (kronograma)
- Zenbat balioko du proiektuak? (aurrekontua)
- Nola jakinaraziko diogu?
- Zer emaitza lortuko ditugu?

Ebaluazioa:

- Nola ebaluatuko dugu prozesua?
- Nola? Zer neurritan? (adierazleak)

AURKEZPENA

Elkartea aurkeztu

Elementu finkoak eta alde
aurretik prestatutakoak



ELKARTEAREN HISTORIA,
SORTU ZENEOA ETA ZEIN
HELBURUREKIN



JARDUERA-EREMUA



LAN-FILOSOFIA



ELKARTZEARI BURUZ
NABARMENTZEKO
ELEMENTUAK

Deialdiaren
arabera alda
daitezke



IBILBIDEA: EGINDAKO
PROIEKTUAK...

Proiektua egiteko arrazoiak aztertzea

DIAGNÓSTIKOA

Proiektua garatzeko arrazioak	Proiektua garatzeko behar eta helburuak
• Proiektuaren zergatia argudiatzea • Aurrekariak – aurretiazko lanak • Egoeraren testuingurua • Halakorik balego, eta beharrezkoa balitz, proiektua egiteko beharra justifikatzen duten datu kuantitatiboak eta kualitatiboak sartzea.	• Zertarako proiektu hau? • Zer lortu nahi dugu?

DISEINUA

**Aldez aurretik egindako analisia
kontuan hartuta diseinatuko
dugu proiektua.**

1. Proiektua aurkeztu

Egin behar dugun prozesua argi eta labur deskribatzea.

2. Onuradunak - Nori zuzenduta dago?



Proiektuaren xede diren pertsonak edo/eta erakundeak identifikatzea. Prozesuan inplikatuta egongo den subjektua eta gure proiektuaren emaitzaz gozatuko dutenak

3. Helburuak - Zertarako egingo dugu proiektua?

Helburuek adierazten dute zer lortu nahi den proiektuarekin. Helburuak ondo formulatzea funtsezkoa da, deialdi askok balorazio-irizpide gisa erabiltzen baitituzte.

Helburu orokorra

Lortu nahi den aldaketa nagusia adierazten du.
Zabala da, baina jakina.
Deialdiaren helburuarekin lerrokatuta egon behar du.

Helburu espezifikoak

Helburu orokorra garatzen dute.
Zehatzak, operatiboak eta ebaluagarriak dira.
Bakoitza jarduerekin eta emaitzekin lotzen da.

Helburuak-ezaugarriak

Argia: Erraz ulertzen da. Ez du anbiguotasunik sortzen

Zehatza: Zehaztu zer lortu nahi den. Saihestu formulazio lausoak

Neurgarria: Adierazleen bidez ebaluatu daiteke. Lortu den jakiteko aukera ematen du

Lorgarria (errealista): Posible da eskura dauden baliabideekin eta denborarekin

Garrantzitsua: Benetako behar bati erantzuten dio. Zentzua du proiektuaren barruan

Denboralizatua: Gauzatzeko epea zehaztuta dauka

4. Zeharkako elementuak

Proiektu honen helburu zehatzak izan gabe, proiektu osoan zehar kontuan hartu nahi diren elementuak, benetako eta bidezko parte-hartzea bermatzeko.

- Hizkuntza
- Parte-hartze orekatua
- Genero-berdintasuna
- Interseksionalitatea
- Ingurumena
- Mugikortasuna

5. Metodologia eta lan-prozesua - nola?



Metodologiak proiektua nola garatuko den azaltzen du. Kontua ez da jarduerak zerrendatzea soilik, baizik eta lan-logika, ikuspegia eta helburuen, ekintzen eta emaitzen arteko koherentzia erakustea.

Lan-metodologiari eta -prozesuari esker, erakunde finantzatzaileak honako hauek ikus ditzake:

- Helburuak nola lortuko diren
- Ikuspegia hautemandako arazorako egokia den
- Proiektua errealista eta exekutagarria den.
- Koherentzia badago diagnostikoaren, helburuen eta jardueren artean
- Nola bermatzen diren parte-hartzea, berdintasuna eta prozesuaren kalitatea

Metodologiaren elementuak

- Lan-ikuspegia (parte-hartzailea, feminista, interseksionala, komunitarioa...)
- Esku hartzeko modua (banakakoa, kolektiboa, mistoak ez diren espazio mistoak, sarean...)
- Teknikak eta tresnak (elkarrizketak, talde-saioak, eztabaida-taldeak...)
- Parte-hartzea eta irisgarritasuna (ordutegiak, espazioa, hizkuntza, zainketak...)
- Jarraipena eta malgutasuna

Lan prozesua

Adibidea:

I. fasea: Prozesuaren oinarria eta diseinu kolektiboa

II. fasea: Egungo egoeraren azterketa, non erreparatu behar diogu?

III. fasea: Pertsonen ongizatea eta lantoki eraldatzaile eta bizigarria bermatzeko sistemen eta tresnen hausnarketa eta diseinua

IV. fasea: Hausnarketatik praktikara

V. fasea: Ebaluazioa eta prozesuaren amaiera



Fase bakoitzean honako hauek definitzen ditugu:

- Helburuak
- Nola garatuko den zehatzago. Saio kopurua, elkarrizketak, barne-lana, prestakuntza
- Emango diren entregagaiak
- Gauzatze-denbora

Horri buruz hausnartzeak proiektuaren koherentziari eusten lagunduko dizue.

6. Ebaluazioa

Ebaluazio-irizpideak zehaztea
Etengabeko ebaluazioa eta azken ebaluazioa
Prozesuaren ebaluazioa vs Jardueren ebaluazioa
Une eta teknika espezifikoak definitzea

Nola neurtuko dut helburuak bete diren?
Zer eta nola ebaluatu nahi dut?

7. Lankidetza

Proiektu asko beste elkarte, erakunde, gizabanako eta abarrekin batera garatzen dira.



1. Azaldu norekin garatuko den proiektua eta aliantza horren arrazoia
2. Erakunde bakoitzaren rolak eta zereginak ondo definitzea

8. Kronograma

LAN-PROZESUAREN FASEAK	Ekai	Uzt	Ira	Urri	Aza	Abend
1go Berdintasun Planaren ebaluaketa						
Azterketa Kuantitatiboa						
Azterketa kualitatiboa						
II. Berdintasun Planaren Diseinua						
Laiatuz lan-saioak egitea						
Planaren lehen zirriborroa						
Kontraste bilera						
Planean zuzenketak txertatzea						
Konpromiso bilera						
Kontsulta publikoa						
Alegazioen zuzenketa						
Onarpena (Udal plenoan)						
Aurkezpen publikoa						

9. Errekurtsoak

Zer baliabide ditugu proiektua
garatzeko?
Zer behar dugu?



Materialak
Espazioak
Barne pertsonala
Ekonomikoak

...

10. Komunikazioa

1. Komunikaziorako oinarrizko irizpideak definitzea
2. Lan-prozesuaren fase bakoitzean zer egingo dugun planifikatzea, noiz eta zertarako



Komunikazioa

Zer	Nori	Noiz	Nork	Nola

	2024							2025						
	eka	uzt	ab	ir	urr	az	ab	urt	ots	mar	ap	mai	eka	
DIAGNOSTIKOA														
1. fasea: KOKAPENA ETA PROZESUAREN OINARRIAK FINKATZEA														
Talde eragileko kideentzako eta eragileentzako informazio-orri edota gonbidapenak														
2. fasea: Prozesua ABIATZEA eta Udaleko politikari eta langileak TREBATZEA														
Prozesua abiaraztearen iragarpen publikoa														
4. fasea: Informazio KUALITATIBOAREN bilketa														
Talde fokal eta elkarrizketetarako informazio-orri edota gonbidapenak														
PLANA														
1go fasea: LEHENTASUNAK FINKATZEA														
Plana abiaraztearen iragarpen publikoa														
2. fasea: Diagnostikoaren emaitzetatik PROPOSAMENAK JASOTZEA														
Lan-saioetarako informazio-orri edota gonbidapenak														
5. fasea: KONTSULTA PUBLIKOA, ONARPENA eta SOZIALIZAZIOA														
Kontsulta publikorako albistea Udalaren webgunean														
Planaren euskarri komunikatiboa sortzea (infografia)														
Sare sozialetarako edukiak sortzea														
Plana Udalaren webgunean igotzea eta hori iragartzea														
Aurkezpen ekitaldi irekia egitea														
Aurkezpen euskarria sortzea (Power Point)														
Planaren euskarri komunikatiboa zabaltzea (infografia)														
Sare sozialetan planetik eratorritako edukiak partekatzea														
Planaren partaidetza-prozesuari buruzko informazioa ematea														



Kontuan hartu
aurrekontuan
jasotzeko

10. Aurrekontua

[illegible]

GARRANTZITSUA
JUSTIFIKAZIORAKO
FAKTURA GUZTIAK
BILTZEN JOAN

ALDEA = DIRULAGUNTZA

GARRANTZITSUA

IDATZITAKO PROPOSAMENAREN
ATALEN ARTEKO ERLAZIOA
KOHERENTZIARI EUSTEA

GAUZATZEA

Teoriatik praktikara igarotzeko unea.



EBALUAZIOA

*ANALIZAR LOS
INDICADORES
DEFINIDOS –
RECOPILAR TODOS
LOS DATOS POSIBLES*

Zer neurritan bete
dira gure
helburuak?

Nola dakigu zein den
gure proiektuaren
betetze-maila?

MEMORIA

Edukia eta
ezaugarriak

- Argia eta zehatza
- Egindako proposamenarekin koherentea (edukia eta ekonomikoa)
- Memoriaren edukia aurreikustea eta informazioa biltzen joatea

Proiektuaren (edo elkartearen) aurrekariak (ekintza edo proiektua egiteko motibazioa, identifikatutako beharrak...)

Aurkeztutako kasuaren deskribapena, eragin-eremu nagusia eta lortu nahi diren helburu nagusiak

Lortutako emaitzak, zer lortu dugu?

Irismena (eragindako pertsonen kopurua, kanpoko eta kanpoko irismena...)

Inbertsioa (dirutan, denboran, pertsonetan, beste baliabide batzuetan...)

Ikasitako eta etorkizunean kontuan hartu beharreko elementuak. Arrakastarako gakoak

Hobetzeko elementuak

Emaitzak eta balorazioa

Eranskinak (proiektua gauzatzean sortutako materiala eta dokumentuak)

ESKERRIK ASKO!



www.donostia.eus/partaidetza

www.farapi.eus

